



INGURUMEN IRIZPIDEAK KONTRATAZIOETAN TXERTATZEKO LABURUPEN-FITXA:

OBRA ZIBILA

Prestatze-data: 2016

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA


Dibulgazio-dokumentu hau dokumentu-bilduma baten barruan sartzen da, eta helburua da erakunde publiko nahiz pribatuen **erosketa eta kontratazioetan ingurumen-alderdiak txertatzea** ahalbidetzea eta haren abantailak jakinaraztea.

Dokumentu honen bidez modu errazean azaldu nahi da zein alderdi hartu behar diren kontuan erosketa edo kontratazio ingurumenarekiko arduratsu bat egiteko. Kontuan hartu beharreko giltzarriak berrikustez gain, ingurumena zaintzen duten produktuak/zerbitzuak identifikatzen dituzten etiketa nagusien berrikusketa bat ere egiten du. Azkenik, erosketa-eta kontratazio-prozesu osorako jarraibideak ezartzen ditu, prozesua ondo amaitzeko.

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA da Eusko Jaurlaritzak berak Ihobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bidez prestatutako laguntza-tresna nagusia.

Administrazio publiko mota desberdinetan erosketa eta kontratazio berdea modu integralean hedatzeko behar den informazio guztia biltzen du eskuliburu honek.

Argitalpeneko testu osoa eskuragarri dago www.ihobe.eus webgunean.





GURE ERABAKIA:

INGURUMEN-INPAKTU TXIKIAGOA DUTEN OBRA ZIBILEKO PROIEKTUAK KONTRATATZEA

Obra zibileko lanak dira, hirigintza-obrekin batera, kontratazio publiko berderako lehentasunezko arloetako bat. Nagusiki, bi arrazoirengatik:

- Azpiegituren eraikuntza eta berrikuntza eta ondorengo kudeaketa eta erabilera urteko gastuen partida garrantzitsuenetako bat delako administrazio publikoentzat.
- Eraikuntza-jarduerak ingurumen-inpaktu handiak dituelako. Kontratazio eta erosketak berdeak eragin positiboa izan dezake, eta ingurumen-inpaktua murriztu dezake, ingurumen-irizpideak bizi-zikloko etapa guztietan txertatuz gero: plangintzan, diseinuan, eraikuntzan, erabileran, mantentze-lanetan eta bizi-amaieran. Ikus ditzagun kontuan hartu beharreko kontzeptu giltzarri, ingurumen-irizpide eta funtsezko beste datu batzuk, zeinak baliagarriak izan baitaitezke obra-mota horretako proiektuak kontratatzeko garaian.



ZER JAKIN BEHAR DUGUN.

Obra zibil berri baten bizi-zikloan ingurumen-irizpideak erabiltzeak haren ingurumen-inpaktu ahalik eta gehiena gutxitzea du helburu. Xehetasunen berri izateko, hauek dira horrekin lotutako ideia batzuk:

Funtsezko zenbait kontzeptu

Zein dira obra zibil bateko lanei lotutako ingurumen-inpaktuak?

1. Lehengai natural asko kontsumitzen dira. Zenbatetsi denez, urtean munduan kontsumitzen diren lehengaietatik % 40-50 eraikuntza-material eta -produktu bihurtzen dira.
2. Hondakinen eta CO₂-emisioen bolumen handiak sortzen dituzte.
3. Beste inpaktu negatibo batzuk eragiten dituzte, hala nola lurzorua artifizialtzea, biodibertsitatea galtzea...

Inpaktu horiek murrizteko, zer neurri har daitezke bizi-ziklo osoan zehar?

- Tokian bertan eskura dauden materialak berrerabiltzeko informazioa duen azterketa geotekniko bat egitea.
- Hurbileko inguruneke inpaktuak gutxitzea (hala nola landareetan duen eragina, hondakin-sorrera, zarata, gas-emisioak eta hautsa...) jardunbide egokiak baliatuz eta makinak eta ibilgailuak behar bezala erabiliz.
- Tokian bertan eskura dauden materialak erabiltzeari lehentasuna ematea, kanpoko materialak sartzearen aldean.
- Ingurumenari dagokionez hobeak diren produktuak eta materialak hautatzea eta erabiltzea: jatorri berriztagarria dutenak, birziklatuak edo birziklagarriak, gai toxikorik ez dutenak...
- Ahalik eta hondakin gutxiena sortzeko eta sortutako hondakinak ondo kudeatzeko neurriak aplikatzea.

Arlo horri lotutako ingurumen-ziurtagiriak: zer ziurtagiri daude eta zer bermatzen dute?

- Proiektua idazteko ardura duten arkitektura- eta ingeniari-entresen ziurtagiriak eta proiektua gauzatzeko ardura duten enpresenak.
 - Proiektua idazteko faserako, UNE-EN ISO 14006 Ekodiseinu Araua har daiteke kontuan. Arau horrek ziurtatzen du enpresak ekodiseinuko irizpideak aplikatzen dituela proiektu berri guztietan (baina ez enpresaren barne-kudeaketan).
 - Lanak gauzatzeko faserako (ikusitako berriaz urbanizazio-obren laburpen-fitxa), lehenetsiko da enpresek ingurumen-kudeaketako sistemaren bat izatea (EMAS, ISO 14001, Ekoscan...) edota legedia betetzea eta lanetan ingurumen-praktika onak aplikatzen dituztela ziurtatzen duen sistema baliokideren bat izatea.

Funtsezko zenbait kontzeptu

UNE-EN ISO 14006	EMAS	ISO 14001	EKOSCAN

OHARRA: ISO 14001 eta UNE-EN ISO 14006 arauetarako dagokienez, sistemaren logotipo estandarrik ez dagoenez, ziurtagiriak ematen dituen enpresa jakin baten ikurra adierazi da kasu honetan, AENORena.

- Produktuen ekoetiketa ofizialak. Eraikuntza-produktu asko daudenez, ez daude denetarako ingurumen-ziurtagiriak. Dena den, aplikatu beharreko ekoetiketa nagusiak hauek dira:

Ekoetiketa	Logotipo ofiziala	Deskribapena
Europar Batasunaren etiketa ekologikoa		Eraikinen kanpoan eta barnean erabiltzeko margoak eta bernizak, eta estaldurak (zurezkoak, ehunak, zurrinak).
Aingeru Urdina		Material bituminosoak, beirazko eta paper birziklatuzko eraikuntza-materialak, taulak eta bestelako zur-produktuak, eraikuntza-makinak, ur hotzeko eta beroko tangak, estaldurak, isolatzaileak, lanparak, margoak eta bernizak, sistema fotovoltaikoak, osasun-ekipamenduak, hondakinrentzako zakuak, eta abar.
Beltxarga Zuria		Estaldurak, zur-produktuak, pinturak eta bernizak.
FSC / PEFC		Produktua fabrikatzeko materiala irizpide jasagarriekin kudeatutako basoetatik edo sailetatik etortzea edo material birziklatuz egina izatea.



KONTRATATZEKO ERABAKITIK KONTUAN HARTU BEHARREKO IRIZPIDEETARA

Erabaki edo eragiteko aukera dugu ingurumen-irizpideak dituzten obra zibileko proiektuak kontratatzean, zenbait unetan: zein unetan? Nola jardun modu jasangarrian?

ZEIN DIRA GURE BENETAKO BEHARRAK?

1. unea. Beharrak

Hau da erantzun beharreko lehen galdera:

- benetan beharrezkoa da obra zibil berria eraikitzea? Edo badira beste aukera batzuk beharra asetzeko, hala nola obra zibil beraren zati bat birmoldatzea edo lehendik egina dagoen obra zibil bat birgaitzea?

Erantzun bat aurkitzeko, erabilgarria izan liteke alde zuretik azterketa bat egitea, besteak beste hiru egoera aztertzeko (ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren ikuspegitik): obra zibila goitik behera berritzea, obraren zati bat berritzea edo obra berri bat egitea.

Erabakitzen bada obra zibil berri bat eraikitzea, ondoren behar bezala funtzionatzen duela eta mantentzen dela bermatzeko, komeni da:

- Obra zibilaren behar errealak aurreikusten eta egokitzen lagunduko duten adierazle batzuk zehaztea eta kalkulatzeko (adibidez, lurren mugimenduari eta tokian bertan dauden materialak berrerabiltzeari lotuak); orobat, sare- eta erregai-kontsumoak eta hondakinen sorkuntza obra zibila egitean optimizatzea.

ZER ETA NOLA KONTRATATU?

2. unea. Obra zibil berri baten proiektuaren kontratazioa

Beharrak zehaztu ostean, ingurunea errespetatuko duen obra zibil berri baten eraikuntza-proiektuaren kontratazioak ingurumen-irizpideak integratu behar ditu: bai proiektua egingo eta gauzatuko duen enpresa hautatzean; bai obra zibil berriaren oinarriko proiektuan bertan eta/edo gauzatze-proiektuan; bai zerbitzua ematean.

1. Idatzi behar duen enpresa edota taldea hautatzeko kontuan hartu beharreko ingurumen-irizpideak:

- Proiektua idazteko lehenengo faserako, gomendagarria da UNE-EN ISO 14006 arauaren edo arau baliokideren baten arabeko (obra zibileko proiektuetan ekodiseinuko neurriak aplikatzeari buruzko araua) ekodiseinuko kudeaketa-sistemaren bat egiaztatua duten enpresak aukeratzea.

2. unea. Obra zibil berri baten proiektuaren kontratazioa

Ez bada aurkitzen baldintza hori betetzen duen enpresarik, kontratuan zehaztu egin behar da hautatutako enpresak baduela gutxienezko esperientzia ingurumenaren aldetik jasagarriak diren obra zibileko proiektuak idazten.

- Obrak gauzatzeko faserako, obra zibiletako lanetarako ingurumen-kudeaketako sistemaren baten ziurtagiria (EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo antzekoren bat) duten enpresei emango zaie lehentasuna.

2. Obra zibilaren oinarriko proiektuaren eta/edo gauzatzeko-proiektuaren memoriarako ingurumen-irizpideak:

- Tokian bertan eskura dagoen materiala berrerabiltzeko irizpide orokorrak:
 - Proiektuan, lehenetsiko da tokian bertan eskura dauden materialak (lurzoruak, oinarriak, zabaldegiak, betegarriak...) berrerabiltzea, kanpotik datozen materialak erabiltzearen aldean.
 - Lurzoru poluituak erremediatu eta lur azpiko urak tratatu behar izanez gero, ingurumenaren aldetik hobeak diren tratamenduak lehenetsiko dira.
- Ahalik eta material gutxiena erabiltzeko irizpide orokorrak:
 - Proiektuan, ahalik eta material gutxiena erabiltzeko aukera emango duten diseinu-soluzioen azterketa sartu behar da.
- Ingurumen-inpaktu txikiagoa duten materialak hautatzeko irizpide orokorrak. Adibidez:
 - Agregakin birziklatu lodia duten hormigoi ez-egiturazkoak
 - Hormigoi aurreatezatuak
 - Eduki birziklatu handiko materialak
 - Material aurrefabrikatuak
 - Legezko iturrietatik eta modu jasagarrian kudeatutako baso-ustiapenetatik datozen zura eta zur-produktuak (FSCk, PEFCk edo baliokideren batek zehaztutako estandarren arabera) eta/edo birziklatuak.
- Hondakinak kudeatzeko irizpide orokorrak:
 - Hondakinak Kudeatzeko Ikerketan, sortzea espero den hondakin bolumenaren % 70 gutxienez prebenitzeko/balorizatzeko helburu zehatz, neurgarri, lorgarri, errealista eta tenporizagarriak jaso behar dira, baldin eta azterketa geoteknikoan egiaztatzen bada balorizazioa egingarria dela.
- Ura kudeatzeko irizpide orokorrak:
 - Proiektuan, lursailaren baldintza hidrologikoei, uholde-arriskuari eta plubiometria-baldintzei buruzko azterketa xehatu bat sartu behar da, ur-jariatzeak kudeatzeko kate egoki bat ezartzeko, drainatze jasagarriaren sistemak ahalik eta gehiena erabiliz.

2. unea. Obra zibil berri baten proiektuaren kontratazioa

- Sareak emaria doitzeko elementuak izan behar ditu, aurreikusitako ur-jariatzearen emaria ingurunera edo sare orokorretara hustu dezaten, eta, hala, uholde-arriskurik egon ez dadin. Ur-hornikuntzako sarea diseinatzean, lurpeko hodietan ur-ihesa hautemateko gailuak instalatzea aurreikusi behar da, ur-ihesak azkar aurkitu eta konpon daitezzen.
- Ibilguei eragiten bazaie, bermatu behar da leheneratzen direla, jatorrizko morfologiari ahalik eta aldaketa gutxiena eragiten zaiola eta ibaiertzeko landaredia leheneratzen dela.
- Proiektuan, azaleko eta lur azpiko uren kalitatea bermatu beharko da, horretarako aplikatutako neurriak zehaztuz.
- Leheneratze ekologikoko eta naturaren aldetik interesa duten eremuen mantentze-lanetarako irizpide orokorrak:
 - Azpiegituraren eraikuntzak eragiten dien guneak tratatzeko proiektu bat sartu behar da. Proiektuan, leheneratze ekologikorako proposamenak sartu behar dira; haien helburua izan behar du funtsezko prozesu ekologikoak leheneratzea (higaduraren egonkortasuna eta kontrola, hidrologia, nutrienteen zikloa, eta energia harrapatzea eta transferitzea).
 - Proiektuak aintzat hartu beharko du obrak zer inpaktu duen naturaren ikuspegitik interesa duten lekuetan, eta neurriak hartu beharko ditu interes naturaleko elementuak mantentzeko eta kontserbatzeko, hala nola ekosistemak, ekotonoak, flora eta fauna autoktonoko elementu bereziak, ur-bideak, baso-eremuak edo paisaiaren aldetik interesgarriak diren elementuak.
- Atmosferan duen eraginaren irizpide orokorrak:
 - Proiektuan sartu behar dira, besteak beste, airearen kalitateari buruzko azterketa prediktibo bat, dardaren azterketa prediktibo bat eta zarataren azterketa prediktibo bat, aukera emango dutenak diseinuan erabaki zuzenak hartzeko.
- Alderdi sozialei buruzko irizpide orokorrak:
 - Proiektuan, obrek ondare historiko-ekonomikoan eta biztanlerian duten eraginari buruzko azterketa bat jaso behar da.
- **BIDE-AZPIEGITUREN** proiektuetarako berariazko irizpideak:
 - Bide-zoruak birziklatzeko eta asfaltoa birziklatzeko teknikak erabiltzeko aukera kontuan hartu eta aztertu behar da.
 - Proiektuan, ahalik eta gehiena erabili behar dira nahasketa bituminosoetan beroan birziklatutako materialak.
 - Materiala eskura dagoen bakoitzean, zagor artifiziala hauetako batekin ordeztu behar da: labe elektrikoko altzairutegiko zepa, eraikuntzako agregakin birziklatua edo horien eta agregakin natural edo artifizialen konbinaketak.
- **TREN-AZPIEGITUREN** proiektuetarako berariazko irizpideak:

2. unea. Obra zibil berri baten proiektuaren kontratazioa

- Balastoa berrerabili behar da.
- Proiektuan, ingurumena gehien errespetatzen duten trabesak agindu behar dira.
- **PORTU**-proiektuetarako berariazko irizpideak:
 - Proiektuan, dragatzeak egiteko, nahitaezkoa izango da dragatze-eremuak zehaztea eta mugatzea, balizko elementu eta substantzia kutsatzaileak aztertzea eta sedimentuen bolumena eta azkeneko kudeaketa-metodoa justifikatzea.
 - Material dragatua edukiz gero eta sedimentua ez bada arriskutsua, proiektuan material dragatuari, itsasora isuri ordez, eman dakioken erabilera produktiboari buruzko azterketa bat sartu behar da.
 - Itsasoko uren kalitatea bermatzeko, urak neurtzeko eta kalitatea gainbegiratzeko plan bat izan behar du proiektuak, bai eta ezarri beharreko neurri zuzentzaileak zehazten dituen isurketengatiko larrialdi-plan bat ere.
 - Bermatu behar da itsasertzeko dinamikan duen inpaktua minimizatuko dela.

3. Zerbitzua emateko ingurumen-irizpideak:

- Lanek irauten duten bitartean sortzen diren dokumentuetarako irizpideak:
 - DinA4 papereko lan, txosten eta materialak % 100 paper birziklatuan entregatu beharko dira, bi aldeetatik inprimatuta. Formatu elektronikoan ematen diren materialak itxi gabeko CD birgrabagarrian edo antzeko gailu batean aurkeztu behar dira (grabaketa gehiago egin ahal izateko).
 - Proiektuaren idazketaz gain obraren zuzendaritza kontratatzen bada, eraikuntza-enpresak, obrak bukatutakoan, azpiegituren erabilerari eta mantentze-lanei buruzko trebakuntza-saio bat eman behar dio kudeatzaileari.

Adierazitako irizpide guztien artetik, dagokion obra zibileko lanen arabera garrantzitsuenak iruditzen zaizkigunak eskatu edo balioetsiko ditugu.

Administrazio batek lanak prozedura ireki edo negoziatu bidez kontratatu nahi baditu, Ihobek argitaratutako *Kontrataziorako eta erosketa publiko berderako eskuliburuan* jaso dira klausula-agirian sartu beharreko irizpide zehatzak (hiru eskakizun-maila daude: oinarrizkoa, aurreratua eta bikaintasun-maila), Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera. Obrak gauzatzeari lotutako irizpideetarako, obra zibileko lanen laburpen-fitxa kontsultatu daiteke. Han, proiektua idazteko eta obrak gauzatzeko irizpideak jasotzen dira.



INFORMAZIO GEHIAGO...

Esteka interesgarriak

- www.ihobe.eus webgunean egin dezakezu kontsulta, non erabilgarri baitituzu **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua** (administrazio- eta bulego-eraikin berrien eraikuntzari buruzkoa da berariazko atal bat) eta **Produktuaren Ingurumen Etiketen Eskuliburua**.
- Halaber, irizpide horiek betetzen dituzten produktuei eta hornitzaileei buruzko informazioa du lhobek, ezarritako irizpideak betetzen dituzten produktu eta hornitzaile berri guztiei irekita dagoena.
- Bestalde, zuzeneko kontsultaren bat egin nahi izanez gero, lhobe Line telefonora deitu dezakezu: 900 150 864.